

OROI-TXOSTENA

SERANTES KULTUR ARETOA AEaren JARDUERA (2015. URTEA)

Hurrengo orrialdeotan SKAk 2015. urtean zehar izandako jardueraren datu kuantitatibo garrantzitsuenak azalduko dira, iazko eta, zenbaitetan, aurreko urteetako datuekin erkatutako bilakaeraren konparazio-analisia eginez.

Txosten honek, azken batean, Serantes Kultur Aretoak herritarrei ematen dien zerbitzuaren analisirako tresna izan nahi du; hausnarketa hau jarduera kualitatiboki ikertzeko eta ebaluatzeko beste tresna batzuez osatu behar da eta jarraian adieraziko diren datu deskriptiboak ezinbestekoak ditu.

ZINE PROGRAMAZIOA

2015ean, guztira 88 film estreinatu ziren, iazko 85en aldean. Hala ere, 88 film berri horiek hilez hil hartuta eta programazioan izandako luzapenak, areto aldaketak edota aldizkako emanaldiak kontuan hartuta, iazko 54 asteetan zehar 124 film izan ziren.

Urtean zehar 75.497 ikus-entzulek erosi zuten zinemarako txartela eta haietatik 13.601 SKAko bazkideak ziren.

Aurreko urtean, berriz, 86.481 ikus-entzule zenbatu ziren eta haietatik 15.233 bazkide.

Diru sarrerak 328.743,50 eurokoak izan ziren; 2013an baino %13 gutxiago.

Dena dela, SKAko bazkideek bazkide izateko ordaindu zutena kontuan hartuko bagenu, azken finean bazkide izateko ordaindu zuten zenbatekoaz ordaindu dituztenez, jaulki diren txartelei zuzenean dagokien diru-sarrera 383.936,50 eurokoa izango litzateke.


Edonola ere, zuzenean saldutako txartelei dagokienez, diru-sarreretan jaitsiera izan da 10.987 ikus-entzule galdu baitira.

Jaitsieraren arrazoia, hain zuzen, 2014an SKAko programazioaren arloan hain emaitza arrakastatsuak lortzearen arrazoi bera da. Jakina, “Ocho apellidos vascos” filmaren estreinaldiaz ari gara, ikus-entzule andana ekarri zigun filma. Horrexegatik esan dezakegu iaz oso urte ona izan zela zine-kontsumorako, jarraian dagoen taulan adierazten den bezala.

Azkenik, iazko memorian azaldu zen bezala, gogoratu behar dugu SKAk ezartzen dituen txartelen prezioak direla-eta, zaila izaten dela komertzialki interesgarriak diren zenbait film ekartzea, eta honek gure aretoetara etortzen den publiko kopurua irregularra izatea ekartzen du. Eskuragarri zeuden filmen kudeaketak iaz emaitza positiboak lortzen lagundu digula ahaztu gabe.

2011tik 2015era izandako ikus-entzuleen bilakaeraren grafikoa


URTEA	2011	2012	2013	2014	2015
IKUS-ENTZULEAK	63.365	72.455	66.230	86.481	75497



Ikus-entzuleen grafikoa hilez hil 2014 eta 2015 erkaturik

	2014	2015
URTARRILA	6.919	5.192
OTSAILA	5.175	6.773
MARTXOA	20.606	5.931

APIRILA	11.341	4.672
MAIATZA	3.796	4.131
EKAINA	4.336	5.002
UZTAILA	4.123	7.604
ABUZTUA	5.618	3.116
IRAILA	4.424	4.856
URRIA	4.424	6.788
AZAROA	5.290	9.372
ABENDUA	9.729	12.060
	86.481	75.497




Zine Klubari dagokionez, iaz guztira 8.807 ikus-entzule izan zirela adierazi behar dugu. 2014an, berriz, 9.968.

Ikusten den beherakada formatu honetan proiektzio gutxiago egin izangatik izan da, programazioaren egutegiaren gorabeherak direla-eta. Izan ere, emanaldiko ikus-entzuleen batz bestekoak eta aurreko urteetako datuak oso antzekoak izan dira. Zifra hauek, edonola ere, eskaintza honen arrakasta adierazten dute, duen interesak ez ezik, SKAk duen audientziak fidelizatzeko politikarekin duen loturak ere azaltzen dutena.

Gure bazkideak dira zine klubeko eskaintza gozatzen dutenak, doan dutelako.

Ikusten denez, 2013an gorakada nabarmena izan zen; izan ere, urte hartan ohiz kanpoko bazkide kopurura heldu zen. Hala ere, gainontzeko urteetan antzeko kopuruak daude eta, funtsean, programatutako film kopuruaren arabera igo eta jaisten dira. Azken hori jai-egutegiak mugatzen du.

	2011	2012	2013	2014	2015
ZINE KLUBEKO IKUS-ENTZULEAK GUZTIRA	8.848	9.529	12.643	9.968	8.807
BAZKIDEAK DIREN IKUS-ENTZULEAK	7.301	7.674	11.228	9.138	8.164



ESZENA PROGRAMAZIOA


2015ean, guztira, 43 ikuskizun aurkeztu ziren SKAn. Haietatik 8 umeentzat edo familia osoarentzat izan ziren, 3 dantza-emanaldiak, 5 musika emanaldiak, 3 lirika emanaldiak, 1 bakarrizketa egileen emanaldia eta gainontzekoak italiar erako antzezlanak nagusientzat

Guztira, 14.667 ikus-entzule izan ziren. Aurreko urtean, berriz, 45 ikuskizun programatu ziren eta 15.983 ikus-entzule izan zen.

Txarteldegiko diru-sarrerak 186.716,73 eurokoak izan ziren, 2014ko 189.134,20 euroen aldean. 2015ean zehazki, emanaldiko batzaz beste 341 ikusle izan ziren eta 4.342 euro. Eta horrek esan nahi du diru-sarrerak emanaldiko 139 eurotan igo direla, nahiz eta batzaz beste 10 ikus-entzule gutxiago izan.

Eszena-jarduera profesionaletako ikus-entzuleen kopuruan bost urte hauetan izan duen bilakaerak gorabeherak izan ditu, 2013koa izan zelarik punturik baxuena; urte honetan krisiaren eragina bereziki islatu zen kultura-kontsumoan. Iazko datuak bost urte hauetako onenak izan ziren. Hala ere, iaz baino bi ikuskizun gutxiago izan zirenez eta adierazitako neurriak kontuan harturik, ikuskizun kopuru bera izan balitz, ikus-entzule kopurua berdintsua izango zatekeen.

	2011	2012	2013	2014	2015
ANTZERKIKO IKUS-ENTZULEAK GUZTIRA	12741	15745	11827	15983	14667



SKA-ko ARETOAK ETA KRESALA LAGATZEA

2015ean SKAn hainbat erakundek eta udal arlok antolatutako 48 ekitaldi eta jarduera bildu ziren, 12 alokairuan. Guztira 18.990 ikus-entzule egon ziren (2014an burututakoetan baino 2.623 gehiago).

Kresala aretoak, berriz, 93 ekitaldi (2014an baino 15 gutxiago) eta 4.360 erabiltzaile jaso zituen.


Iazko oroi-txostenean adierazi zen bezala, Casa Torre Jauregia ireki zenetik, areto hau gero eta gutxiago erabiltzen dela frogatu da. Hortaz,

aurreikusten zen moduan, 2013an (6.000 erabiltzaile zenbatzera iritsi zen urtea) izan zuen igoera deigarria izan zen, baina, antza denez, uneko kontua baino ez zen izan, 2014ko eta 2015eko kopuruak egonkortzea izango delarik joera logikoena, Kresalan burutzen ziren ekitaldi asko Casa Torre Jauregira pasatu direlako.

CASA TORRE JAUREGIA

Iaz Casa Torre Jauregiko aretoetan antolatu ziren ekitaldi anitzetan 14.629 lagun bildu ziren, aurreko urtean baino 1.159 gutxiago.

Horrek guztia adierazten du hasierako bulkada eta “berrikuntzaren” eraginez Casa Torre Jauregiaren erabilera 15.000 erabiltzaileetan egonkortu dela batz bestea, grafikoko urteetan adierazten den bezala:




Erakusketa Aretoari dagokionez, mota askotako 17 erakusketa burutu direla gogoratu behar dugu (aurreko urtean baino bi gutxiago), haietatik bat Rompeolas Aretoan. Guztira, 15.514 lagun hurbildu ziren, iaz baino 12.108 gutxiago. Honen arrazoia 2014ko abenduko La Guerra de las Galaxias zine-sagaren inguruan egindako erakusketa, 10.320 lagun erakarri zituena.

Bere aldetik, Interpretazio Zentroak 273 bisita partikular izan ditu eta zenbait antolatutako talde.

Guztira, zine eta antzerki jardueretan eta aretoak lagatzean 152.737 lagun egon ziren 2015ean, hau da, 2014an baino 20.500 erabiltzaile gutxiago. Baina, lehenago adierazi dugun bezala, urte hartan ikuskizun bereziak izan

ziren eta horiek kopuruak nabarmen igo zituzten ohiko zenbatekoetatik. Grafikoan ikusten den bezala, iaz urte ona izan zen publikoaren aldetik.

Kontuan hartutako bost urteetan, bataz beste, 152.587 erabiltzaile izan dira, hots, 2015eko kopurua baino txikiagoa.



JAIETAKO JARDUERA

Jaietako jardueretan Serantes Kultur Aretoak azken urteetako baldintza berberetan hartu du parte.

Inauteriak

Merkataritza Arloarekin batera, Itsas Inauterietako XI. Edizioa otsailean ospatu zen.

Otsailaren 21ean izan zen inauterietako jaitsieran 49 taldek hartu zuten parte (iaz baino 3 gehiago) eta guztira 1.009 lagunek.

Kornite eguna

Kornite erromeria apirilaren 6an ospatu zen. Programatutako jarduerak arazorik gabe burutu ahal izan ziren, eguraldiak lagun. Oskarbi izan zen egunean zehar eta 18 gradu inguruko tenperaturak izan ziren. Hortaz, eta azken urteotan gertatu ohi denez, milaka lagun animatu ziren Serantes mendira igotzera.

San Jorge

San Jorge jaiak bi asteburutan zehar egin ziren, apirilaren 17tik 19ra eta 23tik 26ra.

SKAk antolatutako jai-egitarauan zeuden ekitaldietarako Txosnen Batzordearen laguntzaz gain, Abra Ostalarien Elkartearen laguntza ere jaso zuen. Halaber, udaleko elkarte eta arlo batzuek garatutako jarduerak programan txertatu ziren. Bereziki aipatu behar dugu "Sardinaren Erronka", Santurtzi Gastronomika Elkarteak antolatua eta hedabideetan zona handia izan zuena. Lortu zuen arrakasta ikusirik, hurrengo urteetan errepikatu ahal izango da.

Kaia izan da San Jorge jaietako protagonista nagusia gaueko ordutegian eta duela urte batzuk sortutako jai eskema sendotu egin da.

Iazko San Jorge jaiak azken urteotako arrakastatsuenak izan ziren, eguraldi ona izan genuelako ia egunero. Izan ere, programa osoa burutu ahal izan zen. Hala ere, adierazi behar dugu pare bat jarduera Gernika parkera eramanez behar izan zirela, eguraldi okerragoa izango zelako.

Karmengo jaiak

Azkenik, eta 2015eko Karmengo Jaietako emaitzei buruzko Memoria Artezkaritza Kontseiluan aurkeztu zen arren, parte-hartze handia izan zela eta Santurtzi eta kanpoko herrietako jende ugari etorri zela gogoratu behar dugu. Eguraldi onak lagundu zuen 2015eko Karmengo Jaiak bereziki distiratsuak izan zirelako ustea zabal zedin.

Sardinera Eguna

Urriaren 3an, bigarren urtez, Sardinera eguna burutu zen. Iaz SKAk hartu zuen bere gain antolaketa, nahiz eta Turismo, Merkataritza eta Emakumearen Zerbitzuaren laguntza izan zuen, bai eta Jai Batzordearena ere.

Jai honek etorkizunean jarraipena izateko asmoa dagoenez, SKAn egindako esfortzua programazioaren eredu organikoa bilatzea izan zen. Hartara, urteetan errepikatzen diren jarduerak burutu ahal dira, jendeak erraz asko identifikatzeko. Planteatutako eredu erabilgarria dela eta ondo funtzionatzen duela uste dugu, nahiz eta zenbait kontu hobetu behar diren eta hasieran aurrekusi baino lehenago bukatu behar den jarduera.

Erromeria kutsu handia duen jai honek, gure ustez, emakumeak omentzeko marko esanguratsua izan behar du; batez ere, arrantza jarduerarekin lotutako lanei bizitza erdia baino gehiago eskaini dieten emakumeei. Hortaz, Memoria Historikoa mantentzeko jarduera da, gure herriko leku ikonikoan burutzen dena, hots, portuan.

Helburu honekin eta diseinatutako egitarauarekin, oso ondo joan zen jaia, eguraldi onak lagunduta jende askok parte hartu zuelako.

BESTE ZENBAIT JARDUERA

Jakina denez, SKAk herriko hainbat elkarterekin dituen lankidetzak hitzarmenen bidez ekitaldi askotan aritu da lankidetzan. Ekitaldiok euren izaeraren arabera behin egitekoak izan daitezke edo SKAren programetan behin betiko sartuta geratu, batez ere jaietako jarduerari dagokienez.

Lehenengoei dagokienez, Santurtziko Arte Plastikoetako Elkartearekin daukan hitzarmen baten bidez lokal bat utzi zitzaion Santa Eulalia kalean eta arte plastikoetako hainbat tailer egiteko diru-laguntza ematen zaie. Tailer hauetan 300 lagunetik gora ibiltzen dira.

Lagun Zaharrak Abesbatzak SKAren diru-laguntza eta laguntzarekin Abesbatzen Topaketen 36. edizioa antolatu zuen. Honetaz gain, Musika Bandak Gabonetako laugarren kontzertu berezia egin zuen abenduaren 26an, Done Jakue katedraleko Musika Kaperako abesbatzarekin batera

Union Musical Vizcaína musika bandak kontzertu batzuk eman zituen jaietan eta jaietatik kanpo. Berezi aipatzekoa da Karmengo jaietan eman zuen kontzertu arrakastatsua, zeinetan Valladolideko Celtas Cortos taldearen laguntza izan zen.

Bestetik, Santurtziko Txistulari Taldeak 19 emanaldi eman zituen, nabarmenena izanda Karmengo jaietan La Otxoa kantariarekin batera egin zuena.

Erraldoi eta Buruhandien Mendi Alde konpartsak, zeinek Autonomiadun Erakunde honekin lankidetzak-hitzarmena sinatu duen, 10 kalejira egin zuen herriko jaietan.

Horretarako sinatutako hitzarmenari esker, Denontzako Auzo Elkarteak Mahastiako Elkartek Errege Magoen kabalgata antolatu zuen Kabiezesetik Udaletxeraino, Errege Magoei portuan harrera egin ondoren.

Bestetik, diru-laguntzak emateko indarrean dagoen araudiaren arabera, Herriko Jaien inguruan antolatu zituzten jarduerengatik diru-laguntzak eman zitzaizen zenbait erakunderi, dagokien diru-sailaren kargu.

Bukatzeko, santurtzibiz webgunearen administratzailea den Juan Carlos Beltran de Heredia jaunarekin sinatutako hitzarmenari esker, 8.000 argazki baino gehiagoko artxiboa dugula adierazi behar dugu. Artxiboan gero eta argazki gehiago dago eta gure historia argazkien bidez ezagutu nahi duten pertsona guztiek dute eskuragarri. Izan ere, iaz Gernika parkean erakusketa egin zen eta, aire zabalean izan zenez, milaka lagunek herriko hainbat tokitako bilakaera ikusi ahal izan zuten argazkietan.

Azkenik, Jon Mao jaunak portuko arrapalan Santurtziko bogalarien omenez egindako horma-mosaikoa gogoratu nahi dugu. SKAk eskatutako lana trencadis teknika erabiliz egin zuen eta oso harrera ona izan du santurtziarren aldetik.

SKAko BAZKIDEAK

2004an hasitako bazkide-politika oso bide eraginkorra izan da publikoa finkatzeko eta publiko hau SKAk duen jardueraren aholkulari eta Autonomiadun Erakundearen komunikazio-politikak eraginkortasun handien izatea lortu duena izan da.


Grafikoan politika honek azken bost urteotan izan duen bilakaera ikusi ahal da:

2011	2012	2013	2014	2015
1.899	2.097	2.697	3.113	2.962

Iaz SKAko bazkide ziren 2.962 pertsonen % 65 Santurtzin bizi dira, % 22,7 Portugaleten, eta gainontzekoak inguruko hainbat herritakoak.

Bazkideen artean, % 63 emakumeak dira eta % 37 gizonak.

Erabiltzaileen adinari dagokionez, grafikoan adierazten diren tarteen araberako ehunekoetako banaketa ondokoa da:



SKAko bazkideek salgai jarritako eszena-jardueren txartelen % 44 hartu zuten eta Zine Komertzialean saldutakoen % 18 kontsumitu. Azkenean, Zine Klubaren kasuan, ikus-entzule guztien % 93 izan zen. Aurretik adierazitako parametro guztietan izan da SKAko bazkideen kontsumoaren igoera.

KOMUNIKAZIO-JARDUERA

Serantes Kultur Aretoak bere gain dituen jardueren izaera dela eta, jardueren komunikazioa, zabalkundea eta publizitatea oso alor garrantzitsuak dira eta lan honi baliabide eta lan ordu ugari eskaini zaizkio.

SKAk, iaz, 467 iragarki labur egin zituen irratietan, 84 spot telebistetan eta 18 iragarki prentsa idatzian. Gainera, Karmengo jaietako Kontzertuak zirela-eta El Correo egunkarian 4 iragarki lortu ziren doan.

Era berean, jaietarako bi aldizkari egin ziren eta formatu askotako 12 eskuorri programazioaren inguruan. Guztira, 148.300 ale banatu edo herritarren postontzietan sartu ziren.

Kartelei dagokienez, zenbait jardueren inguruko 9 kartel egin zirela adierazi behar dugu eta, taldeek eman zizkigutenekin batera, 5.000 ale baino gehiago jarri ziren guztira.

Iaz, plotter, pankarta eta mupiak egin ziren Santurtziko zenbait lekutan jartzeko, gainontzeko publizitatearen osagarri gisa. Metroan 5 mupi eta Bizkaiko Zubian 8 mupi jarri ziren, Antzerki Jaialdia iragartzeko.

Era berean, Erakusketa aretorako 12 plotter egin ziren erakusketen berri emateko eta beste 16 plotter hainbat saltokitan jartzeko, Antzerki Jaialdiaren berri emateko. Inguruko herrietan ere zine eta eszena programazioaren 5.000 eskuorri banatu ziren, beste herrietako biztanleak etortzeko gure guneetara.

Gainera, Casa Torre Jauregiko pantailan Serantes Kultur Aretoak antolatutako jarduera garrantzitsuenak iragarri ziren eta jardueren informazioa Merkataritza arloari helarazi zitzaion herriko pantailetan jartzeko.

Komunikazio digitalari dagokionez, sare sozialen arloan, Facebook-en 4.205 jarraitzaile ditugu eta twitter-ren 586.

SKAko webgunea iaz 70.146 erabiltzailek bisitatu zuten, guztira 146.148 saiotan 445.187 eduki begiratu zutelarik.

Bi mila posta elektronikoa baino gehiago bidali zaie astero bazkideei eta horretarako helbide elektronikoa helarazi digutenei, SKAko programazioa gogoratzeko. Halaber, SKAk burutzen dituen jardueren berri Udal langileei ematen zaie. SKAk antolatutako emanaldi berezien berri beste zenbaiti ere ematen zaie: euskaltegiei, dantza ikastegiei, koadrilei...

Azkenik, 15 prentsaurrekoak, 19 Prentsa Oharrak eta zenbait hedabidetan hitzartutako 74 elkarrizketak azpimarratu nahi ditugu, bai eta herriko erakunde eta pertsonekin izan ziren hainbat koordinazio eta informazio bilerak ere.

Santurtzin, 2016ko martxoaren 21ean
SERANTES KULTUR ARETOKO ZUZENDARIA
Carlos Morán Arostegi